

DIRU ITURRIAK

Zein bide erabiliko dugu finantziazioa lortzeko?

- **Inbertsore zein laguntzaile ekonomikoen** papera oso garrantzitsua izango da gure proiektuan, haiek emango baitigute hau martxan jartzeko **beharrezkoa den diru kantitate hori**.
 - **Ekimen solidarioa** da, **aberaste-helbururik ez** duena, eta horregatik, gizartearen aldeko jarduerak sustatzeko **laguntza eman nahi duen ororen** inbertsio zein diru-laguntzak onartuko dira.
 - Enpresa baten forma har badezake ere, **GKE funtzioa** hartuko du funtsean, beraz, hemen dirua inbertitzen duenaren irabaziak betiere **irabazi pertsonal eta etiko/moralak** izango dira.
 - **Bizikidetza proiektu bat** izanik, ZiUREKIN-ek **ez dio inori aberastasunerako biderik irekiko**, boluntarioen edo soldatapekoen lanez aurrera irtengo den proiektu bat izango da, **aberastasun oro forma etikoan** izanez.
- Kolaborazioan arituko diren erakunde edo talde ezberdinen laguntzeko modu bat ekonomikoa izango da, **nork bere gaitasun eta gogo zein inplikazio-asmoen arabera** betiere.
- **'Crowdfunding' kanpaina posibleek** ere diru iturri berriak suposa litzateke, **unean uneko beharren arabera** planteatu eta aurrera eraman beharko baitira, behar hauek asetzeko jendearen eta proiektu honen aldekoen ekarpenak bilduz.